

# TOBERA MUSIKA ESKOLA



Hemen beheko hau da **Musika-hizkuntzak** TOBERA musika-eskolan duen antolaketa edo egituraketa: Estructura de los estudios de musika-hizkuntza (**Lenguaje Musical**) en TOBERA Musika-eskola:

1. maila	1A	4/5 urte	← zuzenean sar liteke acceso directo
	1B	5/6 urte	← zuzenean sar liteke acceso directo
	1C	6/7 urte	← zuzenean sar liteke acceso directo
2. maila	2A	7 urtetik aurrera	← zuzenean sar liteke acceso directo
	2B		
	2C		
	2D		
	2E		

Baina... zer lantzen da Musika-hizkuntzako eskoletan? ...nola transmititzen dira kontzeptuak? ...zertan eta nola lagun diezaieket seme-alabei? Musika-hizkuntza ikastea musika-hezkuntzaren oinarria da. Musika-hizkuntzan ikasten dutenari esker eraikitzen dute gero ikasleek beren abilezia musika-tresna bat jotzen, abesten, taldean interpretatzen, erritmoa eta mugimendua jarraitzen, partitura bat deszifratzen eta sentitzen, konposatzen...

Pero... ¿Qué aprenden nuestros hijos e hijas en Musika-hizkuntza realmente? ¿Qué conceptos, con que técnica, mediante qué procedimiento? ¿Cómo puedo ayudarles?

El Lenguaje Musical... ¡es el abecedario de la música! ...¡el pilar sobre el que toda práctica musical se sustenta! Aunque los resultados no sean tal vez tan evidentes a primera vista como en instrumento o en dantza.

• Gogoratu tobera.org webgunean dagoela jarrita Musika-hizkuntzako **Plan Pedagogikoaren mailaz mailako laburpena**: ikasketa-helburu orokor eta espezifikokoak, edukiak (kontzeptuzkoak, prozedurazkoak zein jarrerazkoak), ekintzak, eskuratu beharreko gaitasunak, ebaluazio-irizpideak, metodologia.

• Bestalde, ebaluazio-bilera pertsonalizatuak egiten dira ikasturtero eta TOBERAko langileekin aurrez aurre egoteko aukera duzue hala nahi duzuen guzti-guztietan.

Tienes a tu disposición en la página web de la escuela (www.tobera.org) el **resumen del Plan Pedagógico** que seguimos en Lenguaje Musical curso a curso. Además, cada curso se realizan evaluaciones individuales con las familias y tenéis al personal de TOBERA a vuestra disposición siempre que lo requiráis.

Halere, zalantza josita bazaude, zatoz irakaslearekin hitz egitera! TOBERA Musika-eskolan musika-hizkuntzako irakasle diren Rosak eta Ainhoak azalduko dizute zuzenean zertan eta nola egiten duten lan zuen seme-alabarekin; zer eta nola egingo duten lan 2021/2022 ikasturte honetan zuen seme-alabarekin. Orduantxe galdetu edota proposatu ahal izango diezu, gainera, nahi duzun edozer.

Bilera hauek musika-hizkuntzan aurten aurreneko aldiz hasi diren ikasleen familiei daude zuzenduta batez ere (2A maila).

Si, aun así, las dudas persisten... no te preocupes: ven a escuchar las explicaciones de nuestras profesoras de musika-hizkuntza Rosa y Ainhoa. Ellas os contarán directamente qué y cómo trabajan en sus clases con vuestros hijos e hijas (objetivos, metodología...), y también podréis preguntarles y/o proponerles cuanto queráis.

Estas reuniones están especialmente destinadas a familiares del alumnado que este año ha empezado en Lenguaje Musical (grupo 2A).

**Zegaman** eskolak hartzen dituzten ikasleen familientzat: urriaren 25ean, arratsaldeko 16:30ean, Zegamako Jabier Otaegi kultura-etxeke musika-hizkuntzako gelan (Oria aretoan)

25/10/2021. 16:30 horas. Sala Oria de la Casa de Cultura, en Zegama

**Seguran eta Zerainen** eskolak hartzen dituzten ikasleen familientzat: urriaren 26an, arratsaldeko 18:00etan, Segurako kultura-etxeke areto nagusian

26/10/2021. 18:00 horas. Casa de Cultura de Segura

✓ Norbaitek bere herriko bilerara joaterik ez badu, beste herrikora joan liteke.

✓ Si alguien no puede acudir a la reunión de su pueblo, que acuda a la otra.

▷ Saio bakoitzak ordu-erdiko iraupena izatea aurreikusi da.

▷ Cada sesión tendrá una duración aproximada de media hora.

▪ Ezinbestekoa COVID-19 neurriak betetzea / Cumplimiento medidas COVID.